

SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT ETA ESK SINDIKATUEK ELKARRETARATZEA EGINGO DUTE OTSAILAREN 27AN, OSAKIDETZAKO ETENGABEKO ARRETAKO GUNEEN EGOERA SALATZEKO

Osakidetzak eta Barrualde Galdakaoko ESLak entzungor egin diete herritarrek eta profesionalek deitutako manifestazioei, beren EAGen kudeaketa txarragatik; izan ere, ez die baliabide nahikorik ematen, eta talde osoak barne hartzen ez dituen Kontingentzia Plan bat aplikatu nahi die.

Barrualde-Galdako ESLak dokumentu bat egin du zenbait NPBk fakultatiborik gabe ireki ahal izatea aurreikusten duena, lantaldea osatu gabe utziz. Hori dela eta, bertaratzen diren langileek lan-gainkarga eta premiarik gabeko estres-egoera bat hartu behar dute beren gain, baliabiderik ez dutelako eta arrisku psikosozialak kolokan jartzen dituztelako. Eskualdean herritarrek jasotzen duten zerbitzuak ere izango luke eragina.

Osakidetzak egindako Kontingentzia Plana aplikatuz gero, EAGak behar baino baliabide gutxiagorekin irekitza sendotuko litzateke, hau da, murrizketa bat finkatuko litzateke. Planteamendu hori bereziki larria da, kontuan hartzen badugu 2022an ESIko zentroek 241.806 kontsulta baino gehiago artatu zituztela; horietatik 136.844 kontsulta medikoak izan ziren eta 104.962 erizaintzako kontsultak baino gehiago.

Egoera hori Sagarduik aurreratu zuen 2022an; izan ere, Osakidetzaren etorkizunaz hitz egitean, azaldu zuen erizainek artatutako zentroak izango ditugula, eta herritarrek joan-etorriak egin beharko lituzketela arreta jasotzeko. Bada, errealtitate hori iritsi da.

SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek aurrez aurre arbuiatzen dugu Kontingentzia Plana, medikuen, erizainen eta zeladoreen lan-baldintzak prekarizatzen dituelako, eta Etengabeko Arretako Puntuetan baliabide guztien egonkortasuna bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartzea eskatzen dugu. Horregatik, otsailaren 27an elkarretaratzea egingo dugu Durangoko eta Basauriko NPBetan, 17:00etan, eta martxoaren 7an manifestazioa egingo dugu, goizeko 11:00etan, Basauriko udaletxetik.

Usansolon, 2024ko otsailaren 26a.

SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT Y ESK SE CONCENTRARÁN EL DÍA 27 DE FEBRERO PARA DENUNCIAR LA SITUACIÓN DE LOS PUNTOS DE ATENCIÓN CONTINUADA DE OSAKIDETZA

Osakidetza y la OSI Barrualde Galdakao hace oídos sordos a las manifestaciones convocadas por la ciudadanía y profesionales, por la mala gestión de sus dispositivos PACs, a los que no dota de recursos suficientes y quiere aplicar de un Plan de Contingencia que no contempla equipos completos.

La OSI Barrualde-Galdako ha elaborado un documento que prevé que ciertos PACs puedan abrir sin personal facultativo, dejando así el equipo de trabajo incompleto. Este hecho provoca, que el personal asistente tengan que asumir una sobrecarga de trabajo y una situación de estrés innecesaria ante la falta de recursos y que pone en jaque sus riesgos psicosociales. También se vería afectado el servicio que recibe la ciudadanía en la comarca.

De aplicarse el Plan de Contingencia elaborado por Osakidetza, se consolidaría el hecho de abrirse PACs con menos recursos de los necesarios, esto es, se consolidaría un recorte. Este planteamiento es especialmente grave, si tenemos en cuenta que en el año 2022 en los centros los centros de la OSI atendieron más de 241.806 consultas, de las cuales más de 136.844 fueron consultas médicas y más de 104.962 consultas de enfermería.

Esta situación ya la adelantó Sagardui en 2022, cuando explicó, al hablar del futuro de Osakidetza, que tendremos centros atendidos por personal de enfermería y que la ciudadanía tendría que desplazarse para ser atendida. Pues bien, esa realidad ha llegado.

Los sindicatos SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT y ESK rechazamos frontalmente el Plan de Contingencia porque precariza las condiciones de trabajo de facultativas/os, enfermería y celadoras/es, y exigimos que se tomen todas las medidas necesarias para garantizar la estabilidad de todos los recursos en los Puntos de Atención Continuada. Por ello, nos concentraremos el día 27 de febrero en los PAC de Durango y Basauri a las 17,00 y nos manifestaremos el 7 de marzo a las 11 de la mañana desde el Ayuntamiento de Basauri.

En Usansolo, a 26 de febrero de 2024.